Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

# UR KONTSUMOA

Ura gure bizitzan beharrezkoa den elementua da eta ez soilik edateko, beharrezkoa den garbitasuna eta gaixotasunak saihesteko ere.



## *Pentsa ezazu zure eguneroko ekintzetan eta osa ezazu ondoko taula:*

Etxeko biztanleentzat ekintza komunak direnean, adibidez, garbigailua jarri edo platerak garbitu, ekintzaren litro kopurua etxeko biztanleen artean zatitu behar duzu. Esate baterako, garbigailu batek 200 litro gastatzen baditu eta etxean 4 bazarete, 50 litro jarri beharko zenituzke zure ur kontsumoko zerrendan.







| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKINTZA** | Zisterna hustu | Edan-Janaria prestatu | Bainu bat hartu | Garbigailua | Ontziak eskuz garbitu eta iturria irekita |
| **LITROAK:** | 10 | 5 | 250 | 100-200 | 100 |
| **ZENBAT:** | | | | | |
| **GUZTIRA:** | | | | | |







| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKINTZA** | Eskuak garbitu/ Iturria irekita | Ontzi garbigailua | Iturria irekita, minuturo | 5 minutuko dutxa bat | Hortzak garbitu/ Iturria irekita |
| **LITROAK:** | 2/15 | 20-30 | 12 | 50 | 1/7 |
| **ZENBAT:** | | | | | |
| **GUZTIRA:** | | | | | |

## *Orain erantzun ezazu*



Zenbat gastatzen duzu eguneroko zure garbitasunean? .................

Eta, zenbat egunero zure etxean egiten diren garbiketak batuta? ..........................................................

Gutxiago gasta zenezake? .................. Nola? ..............................................................................

.........................................................................................................................................

Zergatik uste duzu ura aurreztu behar dela? Zein arazo izan ditzakegu etorkizunean? ......................

.........................................................................................................................................

.........................................................................................................................................

Bestalde, etxean gastatzen dugun ura UR KONTAGAILUA deitutako aparatu batetan erregistratuta geratzen da. Iker ezazu non dagoen zure etxekoa eta apunta itzazu bertan agertzen diren zenbakiak. Begira ezazu berriz hurrengo astean, zer dio? Zure etxeko ur gastua kalkulatzeko modua da. Ba al zenekien gastu honen arabera ordaintzen dela uraren agiria? Eska iezaiezu zure gurasoei erakusteko!

LIVEWORKSHEETS

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

# NOLA ERABILTZEN DUGU URA GURE ETXEETAN?





**Gurasoekin betetzeko galdeketa**

## KOMUNEAN

| | | Bai beti | Batzuetan | Inoiz ez |
|---|---|---|---|---|
| 1. | Hortzak, eskuak... garbitzean iturria isten al duzue? | 0 | 1 | 2 |
| 2. | Hamar minutu baina gehiago behar al dituzue dutxatzeko? | 2 | 1 | 0 |
| 3. | Komunetik janaria botatzen al duzue? | 2 | 1 | 0 |
| 4. | Etxeko bonbak ba al du karga erdiko aukerarik? | 0 | 1 | 2 |

## OHITURAK

| | | Bai beti | Batzuetan | Inoiz ez |
|---|---|---|---|---|
| 5. | Botilako ura edaten al duzue? | 2 | 1 | 0 |
| 6. | Etxeko iturriek ba al dute ura aurrezteko sistemarik? | 0 | 1 | 2 |
| 7. | Ba al duzue etxean piszinarik? | 2 | 1 | 0 |
| 8. | Autoa garbitzeko mangeraz egiten al duzue? | 2 | 1 | 0 |

## SUKALDEAN

| | | Bai beti | Batzuetan | Inoiz ez |
|---|---|---|---|---|
| 9. | Labadora guztiz betetzen al duzue jarri aurretik? | 0 | 1 | 2 |
| 10. | Platerak ontzi garbigailura sartu aurretik uretatik pasatzen al dituzue? | | | |
| | Ontziak eskuz garbitzean, txorrota zabalik izaten al duzue? | 2 | 1 | 0 |
| 11. | Izoztutako janaria urtzeko ur txorrotaren azpian sartzen al duzue? | 2 | 1 | 0 |
| 12. | Olioa fregaderatik behera botatzen al duzue? | 2 | 1 | 0 |

## KONTSUMOA

| | | Bai beti | Batzuetan | Inoiz ez |
|---|---|---|---|---|
| 13. | Ondo ulertzen al dituzue uraren fakturako datu guztiak? | 0 | 1 | 2 |
| 14. | Azken urteetan zuen etxeko kontsumoa zer egin da? | gehitu | mantendu | gutxitu |
| | | 2 | 1 | 0 |



**Puntuaketa kontuan izanik:**

**Puntuaketa:**

**0-7** Zorionak! Zure etxeko ohitura onak ez galdu. Txalo bero bat!!!

**8-13** Bide onetik zoaz, baina gehiago ere egin zenezake. Oraindik ere ur gutxiago kontsumitzea lor dezakezu. Animo!

**14-20** Oraindik ere aldaketa asko egin beharrean zaude. Pentsa ezazu denon mesederako dela.

**21-28** Argi dago laguntza beharra duzula. Gogoratu iturria irekitzen duzun bakoitzean ura zikintzen duzula! Eta dirua xahutzen ari zara! Informa zaitez! Ohiturak aldatzea uste baino errazagoa da.

LIVEWORKSHEETS